

TXOSTENA



Aurkibidea

Aurkezpena	3
Prestakuntza eta irakaskuntza	5
Dokumentazio Zentroa	7
Ikerketa	9
Aholkularitza eta kontsultoretza	12
Sentsibilizazioa	14
Garapenerako hezkuntza	17
Argitalpenak	20
Bestelako informazioa eta jarduerak	24
Organigrama	25
Txosten ekonomikoa	26

Aurkezpena

2006. urteko memoria honetan, laburbilduta jaso dugu gure erakunde honek urtean zehar egin dituen jarduera nagusiak; eta, horien artean, bereziki nabarmendu ditugu gure iriziz garrantzitsuenak eta berritzaileenak izan direnak.

Unibertsitateko irakaskuntzaren eta prestakuntzaren arloan, batetik, on line ikasketak sendotu dira, eta, bestetik, berezko tituluak Europako Goi-mailako Hezkuntzako Esparru berriari egokitzeko egin den prozesua azpimarratu behar dugu; hain zuzen ere, orain Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari buruzko Masterra izena duena Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari buruzko (lanbideko) Master Ofiziala izango da; eta, era berean, orain Nazioarteko Lankidetzeta, Globalizazio eta Garapenari buruzko Doktoregoko Programa dena, aurrerantzean, (Ikerketarako) Master Ofiziala izango da, izen berbera hartuta.

Dokumentazio Zentroan, aurtan, ahalegin berezia egin dugu Europako Goi-mailako Hezkuntzako Esparru berriari ekarri dituen berrikuntza horietara egokitzeko eta hurbiltzeko. Bereziki, liburutegiaren eredu berria egokitu dugu, Ikasketarako eta Ikerketarako Baliabideen Zentroa izango baita hemendik aurrera. Era horretan, molde berriak bultzatuko ditugu ikasteko eta ikertzeko, etengabeko prestakuntza indartu dugu unibertsitatearekin eta gizartearekin harreman estuan arituta; eta, gainera, guztiz baliagarria izango da ohiko informazioa eta informazio elektronikoa aztertzeke, kudeatzeko, berreskuratzeke eta ebaluatzeke lanbide-arloan dauden eskaerak bete ahal izateko.

Ikerketa-arloan bi alderdi garrantzitsu aipatu nahi ditugu. Batetik, finko sendotu da institutuari atxikita zegoen langileen taldea, eta, hortaz, ikerketa-arloa indartu ahal izango dugu, barruko eztabaida eta hausnarketa bultzatu ahal izango ditugu, eta institutuaren

barruan egingo diren ikerketa-proiektuak ugaltu ahal izango ditugu. Beste alde batetik, lankidetzeta-hitzarmena sinatu genuen Nazioarteko Lankidetzako Estatuko Idazkaritzarekin, Giza Segurtasunaren eta Tokiko Giza Garapenaren ikerketa-ildoak bultzatze aldera. Horrenbestez, mintegiak eta lantegiak egin ditugu, eta, horrez gain, hainbat lan-koaderno, lan-agiri eta txosten elektronikoa eman ditugu argitara.

Aholkularitza eta kontsultoretza arloari dagokionez, aldundietan, udaletan eta instituzioetan egin ditugun aholkularitza-lanez gain, sendotu eta indartu egin ditugu Kuban eta Saharan gaikuntza eta laguntza teknikoa emateko programak; eta, bestalde, Eusko Jaurlaritzak eta Hegoak hitzarmena sinatu dute, Tokiko garapen ekonomikoari buruzko gaikuntzarako estrategia bat inplementatzeko. Horren bidez, diagnostiko egokia egin nahi dugu Euskal Autonomia Erkidegoko gobernuz kanpoko erakundeek tokiko garapen ekonomikoaren arloan Garapenerako Lankidetzeta eta Laguntzarako Funtzari aurkeztu dizkieten proiektuei buruz. Orobat, jardunaldiak antolatu nahi ditugu tokiko garapen ekonomikoari buruz, Euskal Autonomia Erkidegoan garapenerako lankidetzaren arloan aritzen diren langile teknikoentzat bereziki; eta, halaber, beste jardunaldi batzuk prestatu nahi ditugu datorren urtean Perun, Nikaraguan eta Guatemalan egiteko.

Azkenik, bi ekimen aipatu behar ditugu Garapenerako Hezkuntzaren eta Sentsibilizazioaren arloan. Alde batetik, Garapenerako Hezkuntzari buruzko III. Biltzarra egin da. Biltzar horretan sakon aztertu dira Garapenerako Hezkuntzako arrazoibideak eta praktikak, hartara, eztabaida eta partaidetza sustatzeko gobernuz kanpoko erakundeetan, gizarte-mugimenduetan, sindikatuetan, unibertsitateetan, pedagogia eraberritzeko mugimenduetan eta horrelako beste batzuen artean,

azken batean, proposamenak bilatzeko gizartea aldatzeko eta eraberritzeko. Bestetik, honako proiektu hau egin dugu: *Tokiko agenteen parte-hartzea, globalizazio bidezkoago eta solidarioago bat lortzeko. Diagnostikoa eta proposamenak*. Proiektu horren bidez, laguntza eman nahi zaie tokiko agentei globalizazioaren ondorioei buruz senti-

bilatzeko egiten duten lanean gaitasun eta ahalmen gehiago izan dezaten; eta, horrez gain, laguntza eman zaie globalizazio bidezkoago eta solidarioago bat lortzeko proposamenak presta ditzaten. Horri guztiari buru emateko, bestalde, biltzar bat egingo da 2007ko otsailean. •

Prestakuntza eta Irakaskuntza

Jarraipena eman diogu Europako Goi-mailako Hezkuntzako Esparru berrira egokitze prozesuari. Hala, bada, 2006-2007. ikasturtean irakatsiko dira azken aldiz berezko titulu gisa irakasten diren programa batzuk; hain zuzen, honakoak: *Nazioarteko Lankidetzeta, Globalizazio eta Garapenari buruzko* Doktoregoko Programa eta *Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari buruzko* Masterra. Izan ere, lehenbizikoa, (Ikerketarako) Master Ofiziala izango da aurrerantzean; eta bigarrena, berriz, (Lanbide) Master Ofiziala izango da hemendik aurrera.

1. Doktorego-programa

NAZIOARTEKO LANKIDETZA, GLOBALIZAZIOA ETA GARAPENA

Doktoregoko programa hau Euskal Herriko Unibertsitatearen doktoregoko programen eta ikastaroen eskaintza barruan dago, eta Hegoa Institutuak eta Ekonomia Aplikatuko I. eta IV. Sailek bultzatzen dute. Doktoregoko programa guztietan bezalaxe, honetan ere irakaskuntzako urte bat egin behar da eta urte horretan ikasleak 20 kreditu gainditu behar ditu. Bigarren urtea, aldiz, ikerketara zuzenduta dago gehienbat, eta, bitartean, ikasleak gainerako 12 kredituak bete beharko ditu ikerketan eginez. Azkenik, ikasleek Ikerketarako Gaikuntzarako proba gainditu beharko dute; horrenbestez, doktorego-tesiak inskribatu ahal izango dituzte, eta dagozkien ziurtagiri-diplomak emango zaizkie. 2005-2006 ikasturtean 15 ikasle daude matrikulatuta.

2. Graduatu ondoko ikastaroak

NAZIOARTEKO LANKIDETZA ETA GARAPENA

Master honek tresna egokia izan nahi du prestatuntza eta espezializazioa emateko garapenerako lankidetzaren arloan lan egiten duten edo etorkizunean lan egingo duten profesiona-

lei, berdin dio garapenerako gobernu kanpoko erakundeetan aritzen diren edo garapenerako lankidetzarekin zerikusia duten instituzio publikoetan jarduten duten. Masterra egitean, praktikak egin beharko dira lekuan bertan, eta, era horretan, ikastaroa egin duten pertsonak ondo osatu ahal izango dute aurrez jaso duten informazio teorikoa, lankidetzarako proiektu batean sartuko baitira. Horretarako, Hegoa Institutuak bertako eta hegoaldeko herrietako gobernu kanpoko erakundeen lankidetzeta du; eta erakunde horiek ondo hartuko dituzte praktikako ikasleak, ikasleek praktikak lekuan bertan egin ditzaten, hain zuzen ere, haiek Afrikan, Latinoamerikan, Asian edota Europan gauzatzeko diharduten proiektuetan sartuz.

Hona hemen 2005-2006 ikasturtean lankidetzan aritu diren erakundeak: AUGE, Paz y Solidaridad, PTM-mundubat, Solidaridad Internacional, Zabalketa, Intermón, Círculo Solidario, Kataluniako Mugagabeko Ingeneritza, Médicos del Mundo, ARPAS, Nikaraguako Unibertsitate Politeknikoa, F. Iñurrategi Fundazioa, Zutalur, Peruko Flora Tristán, Hondurako ASONOG, Fundación Guatemala, eta Mugarik Gabe. Bederatzigarren edizio honetan, Latinoamerikatik eta Europatik etorritako 23 ikasle hartu dute parte. Lau ikasle UNIFEMen beka batekin egin dituzte praktikak Hegoamerikako hainbat herrialdetan.

On line masterra.
GARAPENERAKO LANKIDETZAKO
AGENTEAK, ESTRATEGIAK, ETA POLITIKAK

Master honen bidez, prestakuntza eta gaikuntza iraunkorra eta etengabea eman nahi zaie garapenerako lankidetzaren arloan lanean aritzen direnei, berdin dio garapenerako gobernu kanpoko erakundeetan aritzen diren edo instituzio publikoetan jarduten duten; baina, betiere, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak baliatzen badituzte, eta teknologia horiek aukera ematen badute etengabeko ikasketa hori behar bezala egokitze gune geografiko desberdinetan dauden pertsonen baldintza eta egoera berezietara. Laugarren edizio honetan, 2005-2006. ikasturtean, alegia, Afrikako, Latinoamerikako, Asiako eta Europako 30 ikaslek hartu dute parte.

On line masterra.
GARAPENERAKO LANKIDETZA ETA
IMMIGRAZIOA EUOPAR BATASUNEAN

2005-2006 ikasturtea da master honen lehenbiziko edizioa, eta EHUKo Konstituzio eta Administrazio Zuzenbidearen eta Zuzenbidearen Filosofiaren Sailaren eta Hegoa Institutuaren arteko lankidetzaren ondorioa izan da. Era berean, beste instituzio batzuek laguntza eman dute master hau abian jartzeko, hain zuzen ere, arlo honetan espezializatuta dauden instituzioek, hala nola, Immigrazioari buruzko Euskal Behatokia (IKUSPEGI), OBREAL (Europa eta Latinoamerikaren arteko Harremanen Behatokia, Bartzelonako Unibertsitatekoa dena), eta estatuko eta nazioarteko zenbait espezialistek.

Masterra bereziki zuzenduta dago gobernu kanpoko erakundeetan eta lankidetzarako instituzioetan lan egiten duten edo lan egin nahi duten pertsoneri, betiere, Erkidegoaren egitura, Europar Batasunak parte hartzeko eskaintzen dituen esparruak eta finantzatzeko dauden aukerak ulertu, baliatu eta erabili nahi badituzte. Era berean, masterra beste pertsona batzuei

ere zuzenduta dago, zehazki, nazioarteko instituzioetan eta administrazio publikoetan aritzen diren, eta garapenerako lankidetzari eta immigrazioari buruz duten prestakuntza osatu nahi duten pertsoneri. Lehenbiziko edizio honetan, Latinoamerikatik, Asiatik eta Europatik etorritako 18 ikaslek hartu dute parte.

3. Ikastaro monografikoak

EHUKo Garapenerako Lankidetzako Bulegoarekin eta unibertsitateko hainbat fakultaterekin eta eskolarekin lankidetzan arituta, hainbat ikastaro monografiko egin dugu garapenari eta lankidetzari lotutako gaiari buruz. Era horretan, elkartasunaren eta unibertsaltasunaren aldeko balioak bultzatu nahi izan dira unibertsitateko erkidegoan eta ikasleei prestakuntza egokia eman nahi izan zaie inguruan dugun munduari buruzko ikuspegi osoagoa eskura dezaten. Aurten, ikastaro hauek egin dira:

- *Garapenerako gobernu kanpoko erakundeak (GGKEak) kudeatzea eta finantzatzea* (Zubiria Etxea). Bizkaiko Campusa. 35 ikaslek hartu dute parte.
- *Osasuna garapen-bidean dauden herrialdeetan* (Medikuntza eta Odontologiako Fakultatea, Leioa). Bizkaiko Campusa. 45 ikaslek hartu dute parte.
- *Garapena, lan-eskubideak eta klausula soziala* (Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea). Sarriko. 49 ikaslek hartu dute parte.
- *Globalizazioa eta garapenaren erronkak* (Zubiria Etxea). Bizkaiko Campusa. 9 ikasle.
- *Lankidetzaren eta osasuna* (Erizaintzako Unibertsitate Eskola, Donostia). Ikastaro hau 2007ko apirilean izango da.
- *Garapenerako lankidetzaren solidariarako sarrerako ikastaroa* (Vitoria-Gasteizko Irakasleen Unibertsitate Eskola). 43 ikaslek hartu dute parte.

Dokumentazio Zentroa

Informazioa gizartearen *onura* bat da, eta behar-beharrezkoa da jakintza zabaltzeko. Hargatik, Hegoa Dokumentazio Zentroa, 1988. urtean sortu zenetik, nazioarteko lankidetzari eta garapenari buruzko gaietan espezializatuta dagoen dokumentuen funts bat sortu eta eskaini du, erabiltzaileen informazioko beharrrak asetze aldera, hala nola: ikasleenak, ikerleek edo herritarrenak, oro har. Hori guztia egin ahal izateko, batetik, ondo hautatutako, sistematizatutako, aztertu eta banatutako bilduma bat izan dugu, eta, bestetik, instalazio egokiak, dokumentuak eskuratzeko modua errazten duten zerbitzuak, baliabide elektronikoak kudeatzeko eta aurkezteko lan ona, eta banakako laguntza-zerbitzua egon da, bai zuzenean, bai eta sarearen bidez ere.

Bilduma

Dokumentazio Zentroan, zuzeneko liburutegia eta liburutegi digitala daude, eta, guztira, 16.000 erregistro bibliografiko baino gehiago ditu, liburuak, erreferentzia-lanak, aldizkarietako artikulua eta literatura grisa aintzat hartuta. Funtsak gaika egindako zortzi unitate handitan daude egituratuta, eta bost biltegitan daude bilduta. Horiek guztiak berezko hiztegi edo thesaurus baten terminologia estandar baten arabera sailkatu eta kontrolatu dira; guztira 1.100 hitz gako edo deskribatzaile ditu, eta horrek asko errazten du informazioa berreskuratzeko eta trukatzeko lana.

Aurten, Dokumentazio Zentroan, 18.000 kontsulta baino gehiago egin dira Hegoaren webgunearen bidez, eta liburutegi digitaleko 6.900 dokumentu jaitsi dira pdf formatuan (irakurketak).

Informazio eta erreferentziako zerbitzuak

- **Informazioko baliabideen buletina.** Buletina formatu elektronikoan baizik ez da banatzen, eta jasotzeko interesa dutela adierazten duten pertsona edo instituzio

guztiei bidaltzen zaie. Gaurkotasuna duten gaietara buruzko informazioa jasotzen du, eta gai horietara buruzko baliabideetarako sarre-
rak ematen ditu; horrez gain, atal finko bat du nazioarteko lankidetzari buruzko argitalpen elektronikoei buruz. 2006. urtean lau buletin argitaratu dira:

- 2006ko Munduko Foro Soziala: Bamako, Caracas, Karachi (6. zk.).
- Garapenari buruzko Europako Adostasuna (7. zk.).
- Migrazioei buruzko Munduko II. Foro Soziala (Madril, 2006ko ekaina, 8. zk.).
- HIESA Afrika azpisahararraren garapen-
krisi gisa (9. zk.).
- **Aldizkarien katalogoa.** 170 aldizkaritik gora, nazioarteko lankidetzari eta garapenari buruzko gaietan espezializatuak. Katalogo honetan laburpen txiki bat dago, gaien edukiei buruz eta Hegoaren liburutegiko bildumaren egoerari buruz; horretaz gain, erakunde argitaratzailearekin harremanetan jartzeko eta aldizkarian sartzeko aukera ematen da –betiere, aldizkaria sarean esku-
ragarri badago–.

- **Erreferentziako obrak.** Erreferentziako obren hautatze-lan bat da (txostenak, urtekariak, estatistikak eta abar), erakunde argitaratzaileen arabera antolatuta. Horiek guztiak liburutegian kontsulta daitezke, eta haietako askoren testu osoa sarean dago eskuragarri.
- **Aurrez zehaztutako erabiltzaileentzako alerta-informazioa.**

Zerbitzu horietara guztietara askatasun osoz irits daiteke Hegoa Dokumentazio Zentroaren web orriaren bitartez.

Bestalde, hobekuntza tekniko batzuk egin ditugu informazioa banatzeko sisteman, esate baterako, mezu elektronikoen bidezko eskariak, iruzkinak eta iradokizunak egiteko formularioak, alerta-zerbitzuak, eta informazioa era hautatuan banatzeko zerbitzuak, bai eta on line kontsulta eta aretoan bertan egiten den kontsulta ere.

Dokumentazio Zentroan, aurten ahalegin berezia egin dugu Europako Goi-mailako Irakaskuntzako Esparru berriak sustatu dituen berrikuntzetara egokitzeko. Bereziki, liburutegiaren eredu berria egokitu dugu, Ikasketa eta Ikerketarako Baliabideen Zentro gisa jarri baitugu; era horretan, molde berriak bultzatuko ditugu ikasteko eta ikeritzeko, etengabeko prestakuntza indartuko dugu unibertsitatearekin eta gizartearekin harreman estuan arituta. Prozesu hori, gainera, guztiz baliagarria izango da ohiko informazioa eta informazio elektronikoa aztertzeke, kudeatzeko, berreskuratzeko eta ebaluatzeko lanbide-arloan izan diren eskariari erantzute aldera. Xede horrekin, nazioarteko mintegi batzuetan parte hartu dugu, eta SEDICen (Informazio eta Dokumentazio Zientifikoko Espainiako Elkar-tearen) "Unibertsitateko liburutegitik informazio-arloan alfabetizatzea" izeneko ikastaroa antolatu dugu martxoaren 8tik 30era bitartean.

Bestelako jarduerak

- Dokumentazioko teknikei eta baliabide elektronikoei buruzko prestakuntza. Hainbat saio antolatu ditugu Deustuko Unibertsitateko eta EHUKo hirugarren zikloko irakasleei, gobernuz kanpoko erakundeei, eta Erandioko Trebakuntza eta Enplegu Zentroko ikasleei zuzenduta.
- Praktikaldietako lau ikasleri prestakuntza eman diegu, eta, batez beste, haietako bakoitzak 300 ordu inguru jaso ditu. Ikasle horiek Euskadiko Prestakuntzako Funtsekoak, Indautxuko Fundaziokoak eta EHUKo Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatekoak izan dira.
- Era berean, beste erakunde eta instituzioekin ere aritu gara: Emakunderen SARE 2006 Jardunaldiak antolatzen eta diseinatzeko, Ekologistak Martxan taldearen Zor Ekologikoa kanpainan, hainbat hitzalditan eta ikastarotan, esate baterako, EHUKo Berdintasunari buruzko Masterrean, Nafarroako Mugarik Gabe-n, Donostiako Sodepaz-en eta EHUren %0,7ko Elkartasun Funtsean.

Zentroak etengabeko lokarriak ditu eginak dokumentazio-arloan espezializatuta dauden beste erakunde batzuekin, eta hainbat ekitalditan hartu du parte; hona hemen horietako batzuk:

- *Informazioaren gizartea garapenerako lankidetzan: erronka berri bat liburutegientzat eta bertako langileentzat izeneko nazioarteko mintegia.* Fundación Tres Culturas. Sevilla, maiatzaren 4a eta 5a.
- *Artxiboak, liburutegiak eta dokumentazio-zentroak izeneko jardunaldiak.* ALDEE. Bilbao, irailaren 21a.
- *REDIALen (Latinoamerikako Informazio eta Dokumentazioko Europako Sarearen) 2006. urteko batzar orokorra eta hitzaldia.* Varsovia, urriaren 25etik 29ra.

Urte hau bereziki garrantzitsua izan da Hegoaren ikerketa-taldearen jarduera finkatze eta sendotze aldera. Prozesu honi emandako bultzadan, zeregin funtsezkoa izan zuen 2005. urtearen bukaeran Nazioarteko Lankidetzako Estatuko Idazkaritzarekin (SECIrekin) eta EHUrekin sinatu genuen lankidetzazko hitzarmenak, institutuaren ikertze-jarduera sustatzeko xede zuenak. Esparru-hitzarmen horren bidez, 2006. urtean, hainbat mintegi, lan-dokumentu, dokumentazio espezializatuko txosten digital eta lan-koaderno prestatu ditugu, betiere, talde honek lehentasunezko zat jotzen dituen ikerketa-ildoetan sarturik, alegia, Tokiko Giza Garapenaren eta Giza Segurtasunaren ildoetan. Horrez gain, 2006. urtean, lehendik lantzen hasiak genituen bi ikerketa-proiektu burutu ditugu.

Aurreko urteetan bezalaxe, ikerketa-taldeko kideek eta lankideek kudeaketa eta irakas-kuntza-lanak egin dituzte Hegoaren prestakuntzako eskaintzetan, bai eta estatuko edota nazioarteko beste unibertsitate eta institutu batzuetan ere; hona hemen horietako batzuk: Deustuko Unibertsitatea, Madrilgo Carlos III Unibertsitatea, Madrilgo Unibertsitate Autonomoa, Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea, Granadako Unibertsitatea, Universitat de Lleida, Managuako Erdialdeko Amerikako Unibertsitatea, Kolonbiako Manizalesko Unibertsitatea, Kolonbiako Antioquiako Unibertsitatea, Kubako Holguingo Unibertsitatea eta abar.

2006. urtearen bukaeran, Eusko Jaurlaritzak diru-laguntza bat eman zigun Ikerketa Sare bat ezartzen laguntzeko; sare horretan, Hegoa, Coimbrako Unibertsitateko Bakerako Ikasketen Gunea eta Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Afrikar Ikasketetako Taldea gongo ziren.

Bestalde, 2006. urtean luzatu egin dituzte María López Bellosoren eta Irantzu Mendia Azkueren ikerketa-bekak; esan bezala, biak ala

biak Eusko Jaurlaritzaren Ikertzaileak Prestatzeko Programan daude eta Hegoan ari dira doktoregoko tesia prestatzen. Bestalde, honako hauek ere Hegoan ari dira tesia egiten: Rodrigo Mogrovejo, AECIren (Nazioarteko Lankidetzako Espainiako Agentziaren) beka-duna dena, eta Angel Lendeche, Mexikoko Yucatango Unibertsitatekoa dena eta Kellogs Fundazioaren beka bat duena.

Ikerketa-proiektuak

Giza segurtasuna, giza garapena eta gobernagarritasuna, gerren ondoren adiskidetzeko, bakezkoak egiteko eta birgaitzeko prozesuetako giltza gisa

Proiektu hau EHUK finantzatu du, 2004. urteko abenduan hasi zen egiten eta 2006. urteko abenduan burutu da. Proiektuaren zuzendaritzaz Karlos Pérez de Armiño arduratu da, eta ikerketa-taldean honako hauek egon dira: Karlos Pérez de Armiño, Eduardo Bidaurratzaga, Alfonso Dubois, Jokin Alberdi, Luis Guridi eta Irantzu Mendia.

Espainiako unibertsitateetan garapenerako lankidetzaren arloan egin diren jardueren tipologia: mugatze-lana eta konparaziozko azterketa

Proiektu hau Unibertsitateetako Estatuko Idazkaritzak (MEC-k) finantzatu du, 2005. urtean hasi zen eta 2006. urtean bukatu da. Proiektuaren zuzendaritza Koldo Uncetaren esku egon da, eta honako hauek izan dira ikerketa-taldean egon direnak: Koldo Unceta, Eduardo Ramos, Adolfo Morais, Clara Murguialday eta Eva Fernández.

Mintegiak

Aurten, ikerketa-arloko bost mintegi egin dira, eta Tokiko Giza Garapenari eta Giza Segurtasunari buruzko hainbat gai landu dira horietan. Horretarako, bertako eta kanpoko aditu batzuk egon dira bertan, eta haien ekarpena egin dute: beren lanak batera jarri dituzte eta hausnarketak egin dituzte, eta, era horretan, hainbat saio trinkotan ikerketa-arloan izan diren aurrerapenei eta dauden beharrezaneiei buruz eztabaidatu dute; hain zuzen ere, gai hauek izan dituzte aztergai:

1. Tokiko Giza Garapenaren esparru teorikoa. (Saioak: azaroaren 28a (2005), martxoaren 21a eta 30a)

Mintegi honen helburua zen tokiko garapenaz hausnarketa egitea tokiko giza garapen modura ikusirik, alegia, giza garapenaren ikuspegitik azterturik; era horretan, agenda bat prestatu nahi zen, gai honi buruzko ikerketako estrategia bat zehaztu ahal izateko. Tokiko giza garapena mahaigaineratu da tokiko komunitateetan jarduteko estrategia gisa (dituen maila guztietan, alegia, udal-, probintzia- edo eskualde-mailan), azken batean, pertsona eta talde guztien benetako garapena lortu nahi baitu globalizazioaren esparruan. Haren xedea da tokiko komunitatearen jabe-

kuntza lortzea, hartara, komunitate horrek hobeto kontrolatu ahal izan ditzan globalizazioan dituen garapen-baldintzak zehazten dituzten tresnak; azken batean, kontua da ez pentsatzea hautabide edo defentsa huts bat dela, baizik eta globalizazioa eraikitzeko modu berritzaletzat hartzea.

2. Migrazioak, baterako garapena eta tokiko giza garapena. (Saioak: maiatzaren 17an eta ekainaren 28an)

Mintegiaren xedeetako bat zen behar bezala argitzea zein ziren baterako garapena kontzeptuaren edukiak eta, hortik abiatuz, kontzeptu horrek garapenerako tresna gisa zuen ahalmena aztertzea. Mintegiaren abiaburua baterako garapena zen, eta kontzeptu horren bidez aditzera eman nahi zen komunitate migratzaileek egiten duten ekarpena pertsonen ekonomia- eta gizarte-arloko baldintzak hobetzeko, hala jatorrizko herrialdeetan nola migratzaileen xede diren herrialde horietan. Baterako garapena ondo kokatu behar dugu, hau da, migrazioaren eta garapenaren artean dauden elkarrekin zail eta konplexuen giroan. Eta, horri dagokionez, zerikusi berezia du bidalketekin, izan ere, horixe da emigratzaileek egiten duten ekarpen nagusia beren sorrerietan garapena sustatzeko. Mintegian, sakon aztertu zen baterako garapen kontzeptuaren jatorrizko definizioa, izan duen bilakaera eta politika publikoetan nola gauzatu den.

3. Tokiko giza garapenaren ekonomia-, enpresa- eta finantza-alderdiak. (Saioa: azaroaren 8a)

Tokiko giza garapenaren ikuspegiak duen konturik garrantzitsuenetako bat da ekonomia- eta ekoizpen-alderdiei eta enpresa- eta finantza-arloko antolamenduari dagokiena. Hargatik, mintegi honen bitartez, sakon aztertu eta ikertu nahi ziren tokiko eta eskualdeko ekonomia-, enpresa- eta finantza-arloa antolatze modu berriak, bai eta tokiko giza gara-

penaren ikuspegitik garapenari egin diezaioketen ekarpena ere; alegia, pertsonak gizartean dituzten gaitasunak eta aukerak ugaltzeko ekarpena, baliabideetan oinarrituta, eta tokiko eta eskualdeko esparruan dauden gizarte-agenteek parte hartuta.

4. Giza segurtasuna, GIB eta garapenerako lankidetzak Afrika azpisahararren. (Saioak: urriaren 20a eta 21a)

Afrika azpisahararreko herrialdeetan alarma-egoera larria dago oro har, gaitz batzuek eragin dituzten osasun-baldintzak eta baldintza sozioekonomikoak direla eta; batez ere GIB-HIESaren pandemiak eragin duena, gaitz hori kalte larria egiten ari baita gaur egun hango gizarteetan. Gaur egun ondorio horiek ez dira bakar-bakarrik osasun-arazo gisa aztertzen; gaur egungo ikuspegitik, gaitz horiek herrialde haietan dagoen oztopo nagusia dira hango gizartea garatzeko, bai eta pertsonen segurtasuna bermatu ahal izateko trabarik handiena ere. Hortaz, bada, mintegian ondo aztertu zen Afrika azpisahararreko herrialdeetan zer-nolako harremana dagoen giza segurtasunaren, GIB-HIES gaitzaren aurkako politiken eta nazioarteko lankidetzaren artean. Hain zuzen, ahalegina egin zen behar bezala aztertzeko osasun-, ekonomia-, gizarte-, kultura- eta politika-arloko zein eragilek zabaltzen edo hedatzen duten gaitza; era berean, epidemiak arlo horietan guztietan dituen ondorioak ikertu ziren, eta makro eta mikro politikak proposatu ziren gaitzari aurre egiteko, betiere, herrialde ahuletan gaudela aintzat harturik eta leku horietan oinarritzko zerbitzuak eskuratzeko ere zailtasun ugari dagoela kontuan izanik.

5. Giza segurtasuna: oinarriak eta aplikazioak. (Saioak: azaroaren 24a eta 25a)

Mintegi honen bidez, giza segurtasunaren kontzeptuan sakondu zen eta hausnarketa

egin zen horren gainean; eta, horrez gain, kontzeptuaren aplikazio politikoaz eztabaidatu zen, kontzeptuak dituen ahalmenak eta mugak aintzat harturik. Helburu nagusia izan zen giza segurtasunaren kontzeptua eta haren aplikazioa zehatz-mehatz aztertzea hainbat ikuspegitatik, baina, batez ere, bakearen, segurtasunaren eta garapenaren arteko loturatik begiratuta, eta hainbat sektoretako alderdiak eta kasuen azterketak ikerturik. Era berean, kontzeptuaren garapen teorikoa lortu nahi zen, beste esparru batzuekin harremanetan jarriz, esate baterako, genero-arloko ikasketekin, gobernagarritasun demokratikoarekin eta ingurumen-arloko segurtasunarekin harremanetan jarriz.

Txosten digitalak

Dokumentazio Zentroaren (CDOC) lankidetzari esker, lau txosten digital prestatu dira, eta horietan lau gairi buruzko dokumentazio espezializatua bildu da; hona hemen gaiak: *Tokiko giza garapena, Migrazioa eta garapena, Gobernagarritasuna eta lankidetzak* (Alboan gobernu kanpoko erakundearekin batera egina) eta *Giza segurtasuna*.

Txosten horiek egiteko, goian aipatu ditugun lau gai horien gaineko material garrantzitsua (artikuluak, txostenak, iturri estatistikoak, web orriak eta abar) hautatu, indizatu eta dagozkien fitxak osatu dira. Txostenak Hegoaren web orrian daude eskuragarri, eta, haien bidez, ikerlariei, ikasleei, irakasleei, garapenerako lankidetzako profesionalei eta, oro har, interesa duten guztiei laguntza eman nahi zaie, hala prestakuntzan nola lan-arloan. Ez dira txosten itxiak; izan ere, poliki-poliki agiri berriak eta web guneen aipamen berriak sartuko baitira haien barruan, eta, era berean, orain dauden erreferentzien informazioa hobetzen eta gaurkotzen joango da.

Aholkularitza eta Kontsultoretza

Urtean zehar egin den jarduera zenbait lan-ildotan bideratu da; hona hemen lan-ildo horiek:

1. Lankidetzak-programak dituzten instituzio publikoei eta pribatuei aholkularitza ematea

2006. urtean aurrera jarraitu dugu laguntza tekniko ematen garapenerako gobernu kanpoko erakundeek aurkeztutako proiektuen aurretiazko ebaluazioan eta ondorengo jarraipen-lanean; proiektu horiek hainbat deialditan aurkeztu dituzte, hain zuzen ere, Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako aldundiek, BBK-k (immigrazio eta garapenerako lankidetzan), eta Getxoko, Santanderko, Irungo, Ordiziako, Tolosako eta Eibarko udalek egindako deialdietan.

Guztira, 600 proiektu baino gehiago aztertu eta balioetsi dira, eta proiektu horiek garapenerako lankidetzak, sentsibilizazioa eta garapenerako hezkuntza, immigrazioa eta ekintza humanitarioa bezalako gaiak jorratu dituzte; bestalde, onetsitako 250 proiektu baino gehiagori jarraipen-lana egin zaie, eta proiektu horiek 12 milioi eurotik gorako kopuruagatik onetsi dira.

2. Gaikuntza eta laguntza teknikoko programak Kuban eta Mendebaldeko Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoan

Lau urte daramatzagu Kuban lan egiten Nazio Batuen Garapenerako Programaren tokiko giza garapenerako programarekin koordinatuta dauden proiektuetan, bai eta Holguingo Unibertsitatearekin, eta MINVEC (Ministerio para la Inversión Extranjera y la Colaboración Económica) eta MINAZekin (Ministerio del Azúcar), betiere, tokiko garapen ekonomikoa ardatz gisa harturik eta Holguingo ekialdeko eskualdean parte hartzeko lehentasuna izanik. Programak ekintza hauek hartzen ditu barne:

i. Holguingo Unibertsitatean Tokiko Garapenerari buruzko Diplomari laguntza ekonomiko eta tekniko eta irakasleen sostengua ematea.

ii. Garai bateko azukre-lantegiak eraberritzeko lanen esparruan, garapen ekonomikoa sustatuko duten jarduerari laguntza ematea.

Une honetan hainbat proiektu daude jardunean, eta horiek Eusko Jaurjaritzaren finantziak jaso zuten aurreko urteetan; proiektu horiek Holguingo eskualdean dauden CAI Guatemala eta CAI Frank País nekazaritzako eta industria-ko zentralak eraberritzeko xedea dute. Horretaz gain, 2006. urtean, beste proiektu bat onetsi da, Holguingo Unibertsitatean tokiko garapen ekonomikori buruzko diplomatuei laguntze aldera, eta, orobat, laguntza eman zaio Las Tunas eskualdean Azukrearen Ministerioak (MINAZ) duen enpresa-kudeaketari buruzko prestakuntza-erloko zentroari.

Mendebaldeko Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoan, programa bat egiten ari da 1997. urtetik, Tindoufeko (Aljeriako) kanpalekuetan errefuxiatuta dauden biztanleei gaikuntza eta laguntza tekniko emateko, Eusko Jaurjaritzaren laguntzarekin. Programa horren bitartez, prestakuntza ematen zaie Mendebaldeko Saharako hainbat ministeriotako langile tekniko-ek eta Mendebaldeko Saharako Emakumeen Batasun Nazionaleko langileei, eta, orobat, gaikuntza bereziak irakasten zaizkie tokiko administrazio-ko eta kudeatze-erloko proiektuei dago-kionez. 2006. urtean, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearekin (IVAP-HAEE) behar bezala koordinatuta, Rabounniko Administrazio eta Lan Eskola finkatzea lortu da; eskola horretan prestakuntza-erloko jardura asko egiten dira. 2006. urtean, Eusko Jaurjaritzak beste proiektu bati eman dio laguntza, bi urterako eman ere, eta, horren bitartez, wilayetan tokiko garapen ekonomikorako bulegoak bultzatuko dira eta funtzio publikoa indartuko da, wilaya horietan ekoizpen- eta zerbitzu-erloko proiektuak eta ekimenak garatuz; ildo horretan, ekipamenduko osagaiak eta funtzio publikoan lanean aritzen diren biztanleek azaltzen dituzten ekimen ekonomikoei zuzendutako mikrokredituetarako txandakako fondoak baliatuko dira.

3. Latinoamerikan eta Afrikan lankidetzako proiektuak kudeatzeko lanetan gaikuntza- eta aholkularitza-zerbitzuak egitea

Lan-arlo honetan, hainbat zerbitzu antolatu dira, esate baterako, Bizkaiko Foru Aldundiak Perun proiektuen jarraipena egiteko duen zerbitzua, eta Entrepoblesek zuzentzen duen Kataluniako partzuergo batena den eta EB, Generalitat eta Caixaren finantziarioa jaso duen Sucumbíosko (Ekuadorreko) hiru urteko proiektu baten azken ebaluazioa egiteko zerbitzua.

Horrez gain, hainbat ikastarotan parte hartu da, gonbidatutako irakasleak joan baitira horietara, esate baterako, Bartzelonako Unibertsitatearen eta Madrilgo Unibertsitate Konplutentsearen Lankidetzari buruzko masterretan, eta lankidetzako proiektuak kudeatzeko lanetan gaitzera zuzenduta dauden hainbat mintegitan eta ikastarotan; honako hauek izan dira lankidetzako hori jaso dutenak: Nafarroako Unibertsitate Publikoko Lankidetzarako Bulegoa, Eibar, Hernani eta Santanderko udalak, Kanarietako garapenerako gobernuz kanpoko erakundearen koordinakundea, Nazioarteko Osasunerako eta Lankidetzarako Carlos III.a Fundazioa, Unesco Etxea eta beste batzuk.

UNIFEM–Hegoabekak. Eusko Jaurlaritzaren Nazio Batuen Nazioarteko Erakundeei Laguntzeko Programaren finantziarioaren bitartez, eta, era berean, Latinoamerikako Emakumearentzako Nazio Batuen Garapen Funtzaren bidez (UNIFEM), beka-deialdia egiten jarraitu dugu, eta, era horretan –eta, dagoeneko, ondoz ondoko hiru urte badira deialdi horiekin hasi ginenetik–, Euskal Autonomia Erkidegoan Genero eta Garapenaren arloan prestakuntza jaso duten zortzi emakumeri aukera eman zaie UNIFEMeko borondatezko lankide gisa aritu daitezkeen UNIFEMek Perun, Brasilen, Argentinan, Kolonbian, Uruguain, Nikaraguan, Venezuelan, Ekuadorren eta Paraguain dituen bulegoetan. Hartara, bada, zortzi emakume horiek gehitu behar dizkiegu, 2005. urteko deialdiko beka berriak duten beste horiei.

4. Eusko Jaurlaritzaren Garapenerako Lankidetzako Zuzendaritzaren eta Hegoaren arteko hitzarmena, tokiko garapen ekonomikoari buruzko gaikuntzan estrategia bat inplementatzeko dena

Eusko Jaurlaritzaren Garapenerako Lankidetzako Zuzendaritza eta Hegoa prestakuntza-plan bat sustatzen ari dira herri-ekonomiako edo tokiko garapen ekonomikoko arlo sektorialari buruz. Plan horren helburu nagusia da ildo horretatik doazen lankidetzako ekintzak hobetzea, hala arlo estrategikotik, nola ikuspegi teknikitik.

Horretarako, prestakuntzako jarduera osagarrien eta koherenteen ordena logiko bat prestatu da, betiere, epe luzeko ikuspegitik antolatuta, eta garrantzi handia eman zaio proiektu baten bizitzaren zikloan esku hartzen duten agenteen kateari; hona hemen zein diren: tokiko erakundea, erakunde eskatzailea, finantza-erakundea... eta abar. Prestakuntza zuzenduta dago, batetik, Iparraldeko lankidetzako agenteen arteko langile teknikoei, eta, bestetik, estrategien benetako subjektuei, Hegoaldeko (Erdialdeko Amerikako eta Andeetako) alderdiei.

Hitzarmen honen esparruan, 2006. urtean, honako jarduera hauek egin dira:

- Euskal Autonomia Erkidegoko gobernuz kanpoko erakundeek tokiko garapen ekonomikoaren arloan Garapenerako Lankidetzako eta Laguntzarako Funtzari aurkeztu dizkieten proiektuen diagnostikoa.
- Tokiko garapen ekonomikoan gaitzeko jardunaldiak egin dira. Maiatzaren 30ean eta 31n.
- Tokiko garapen ekonomikoari buruzko ikastaroa, 24 orduko iraupenekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan garapenerako lankidetzaren arloan aritzen diren langile teknikoei zuzendua. Urriaren 16tik 24ra.
- Perun, Nikaraguan eta Guatemalan tokiko garapen ekonomikoari buruzko ikastaroen kudeaketa, 2007. urtean egingo dena.

Sentsibilizazio-arloaren xedea da garapenari eta lankidetzari lotutako gaiak gizartean zabaltzea eta hedatzea, eta, era horretan, ahalegina egitea kontzientzia kritikoa pizteko eta gizartea mugiarazteko.

1. Urteko jardunaldiak

Martxoaren 20tik 22ra bitartean XIII. edizioko jardunaldiak egin ziren, BBKren babesarekin; jardunaldien izenburu orokorra honako hau izan zen: *Globala-tokikoa, globalizazio bidezkoago bat lortzeko proposamenak*. Izenburu horrekin, beraz, esparru bat eskaini zen hausnarketa egin ahal izateko alderdi globalei eta tokiko alderdiei buruz, diagnostiko partekatu bat zehazteko globalizazioari eta haren ondorioei buruz, eta toki-mailatik ekimenak sustatzeko, nola edo hala mundu bidezkoago eta solidarioago bat eraiki ahal izateko. Jardunaldietan honako hauek aritu ziren hizlari gisa: José Manuel Pureza, María José Fariñas, Sergio Boisier, Montserrat Rosa, Juan Hernández, Teresa Maldonado eta José María Tortosa.

2. Bantaba. Giza garapenerako, hezkuntza globalerako eta herritarren parte-hartzea sustatzeko baliabideak programa

Urte honetan, aurrera jarraitu dugu Bantaba proiektuarekin. Proiektu honen bidez, hainbat jardueraren bidez, esparruak eskaini nahi dira komunikaziorako, prestakuntzarako, esperientziak elkarrekin trukatzeko, eta teknologia berrietan oinarrituta dauden tresnak sustatzeko gizarte-sentsibilizazioaren ildoan. Programa hau batera finantzatu da Eusko Jaurlaritzaren Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzak, Arabako Foru Aldundiak, Vitoria-Gasteizko Udalak eta Bilboko Udalak eman duten laguntzarekin. Honako jarduerak hauek egin dira:

- www.bantaba.ehu.es izeneko ataria mantentzeko eta elikatzeko lana.
- Behatoki tematikoan gai berriak jarri dira: garapen iraunkorra.
- Prestakuntza erraza izeneko esparruan ikastaro berriak jaso dira: *Garapenerako lankidetzaren eta osasuna; Generoa eta gatazka armatua; Migrazioak eta garapena; Giza garapena: hautabidezko proposamen bat; Lankidetzako proiektuak identifikatzea eta haien plangintza egitea; Garapenerako lankidetzako proiektuak antolatzea; Lankidetzako proiektuak ebaluatzea eta haien jarraipena egitea; Zor ekologikoa; Giza garapenaren eta giza eskubideen arteko loturak: kontzeptuak eta neurketak.*
- **Hiztegi elektronikoa.** Hiztegi elektroniko honen bidez, Karlos Pérez de Armiñok zuzentzen duen eta Icariak eta Hegoak 2000. urtean argitara eman zuten Garapenerako Lankidetzako eta Ekintza Humanitarioko Hiztegiko sarrerak kontsulta daitezke. Eskaintzen dugun bertsio elektronikoa honako aukera hauek ematen ditu:
 - Hainbat sarreratarantz irits daiteke alfabetoaren ordenari jarraiki.
 - Bilaketak egin daitezke egileen arabera eta gai-multzoen arabera.
 - Ingelesa/gaztelania eta Gaztelania/ingelese aurkibide alfabetikora sartzeko modua dago, zalantzarik itzulpena izan dezaketen terminoak ikuskatzeko aldera.

- Erreferentzia gurutzatuak daude loturen bidez.
- **Zabalgune.** Toki hau euskara hutsean dago, eta, bertan, gai interesgarri asko jorratzen dira, betiere, giza garapenari lotutakoak. Dokumentazio berria sartu da gida didaktikoen, artikulua espezializatu eta dokumentu sakonen inguruan egituratuta.
- Bantaba web-aren edukiak eta izan ditzakeen aukerak zabaltzeko **block-a**.

3. Tokiko agenteen parte-hartzea globalizazio bidezkoago eta solidarioago bat lortzeko. Diagnostikoa eta proposamenak proiektua

Eusko Jaurlaritzaren Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzak eta Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentziaren finantziazioa jaso duen proiektu honek, hainbat jardueraren bidez, ondo sendotu nahi du tokiko agenteek globalizazioaren ondorioei buruz sentsibilizatzeko egiten duten lanean daukaten gaitasuna, bai eta globalizazio bidezkoagoa eta solidarioagoa lortze aldera egin dituzten proposamenetan.

Bigarren urte honetan, jarduera hauek egin dira:

- Gai-multzoen mintegiak egin dira. Aurreko urtean hasi ziren gai-multzoen saioak bukatu dira; honako hauek izan dira: 1. *Globalizazio ekonomikoa, nazioarteko merkataritza eta lan-arloko arauak*; 2. *Tokiko giza garapena globalizazioaren esparruan*; 3. *Demokraziaren krisiari aurre egiteko politikan parte hartzeko dauden modu berriak*; 4. *Globalizazioa eta politika publikoak generoaren ikuspegitik*; eta 5. *Giza segurtasuna: segurtasunerako eta garapenerako agendak bateratzea*.

suna: segurtasunerako eta garapenerako agendak bateratzea.

- Gai-multzoen azken mintegia. Martxoaren 30ean burutu zen Bilbon, eta helburu bikoitza izan zuen: alde batetik, talde bakoitzaren ondorioak aditzera ematea, eta, bestetik, Biltzarrerako proposamen bat aurkeztea, eta hor hainbat gai-multzori eta hizlariri buruzko ekarpenak egin ahal izatea.

Eta honako argitalpen hauek eman dira argitaratu:

- Gida didaktikoa eta orri tolestua.
 - *Emakumeak mundu-mailako hitzaldietan.*
 - *Mundua ez da salgai bat.*
- Lan koadernoak:
 - *Parte-hartzea: auziaren egoera (39. zk.).*
 - *Sistema globalaren krisia eta kudeaketa. Paradoxak eta hautabideak globalizazioan, eta Ordezkarriaren ondoko politika baterantz?: parte-hartzea XXI. mendean (40 zk.).*
 - *Munduko Bankua eta emakumeengan eta generoko harremanetan duen eragina (41. zk.).*
- Lan-harremanen aldizkaria.
 - *Tokiko proposamenak beste globalizazio bat lortzeko. Globalizazio ekonomikoari, gizarte-eskubideei eta lan-arloko arauetarako buruzko mintegia (zenbaki berezia).*
- Lehenengo urtean egin ziren gai-multzoen mintegietako kontaketak.
(INFORMAZIO GEHIAGO JASOTZEKO, IKUSI ARGITALPENAK)

4. Iparraldean eta hegoaldean herritarren partaidetzako esperientziak sistematizatzea programa

Programa honen bigarren aldiari jarraipena eman zaio, 2002. urtean hasi baitzen, Alboanek, Hegoak eta Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutuak bultzaturik. Eusko Jaurlaritzaren Garapenerako Lankidetzako Zuzendaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzatu duten proiektu honen esparruan, honako jarduera hauek egin dira:

- *Herritarren parte-hartzea eta esperientziak sistematizatzea* jardunaldiak. Donostian izan ziren, azaroaren 30ean eta abenduaren 1ean, eta, bertan, parte-hartzearen esparruan esperientziak sistematizatu dituzten eta horretaz hausnarketa egin duten erakundeetako ordezkariak bildu ziren.

Eta honako argitalpen hau eman da argitara:

- *Sistematizazioaren abentura. Nola ikusi eta ikasi gure jarduerak, geure jardueratik abiatuta.*

(INFORMAZIO GEHIAGO IZATEKO, IKUSI ARGITALPENAK)

5. Ikastaroak, solasaldiak eta hitzaldiak

Hitzaldi eta solasaldi askotan parte hartu dugu; hona hemen horietako batzuk: EHUren emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako masterra –Donostian egina–, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Generoari buruzko Programa, Garapenerako estrategia positiboari buruzko jardunaldiak: tokiko boterea, parte-hartzea eta antolamendua –Eusko Jaurlaritzak eta Bilboko Udalak antolatutakoak–, eta, era berean, Mugarik Gabe taldeak Iruñean antolatutako generoari eta garapenari buruzko ikastaroak eta tailerrak, eta Bilboko Udalak eta beste batzuek antolatutakoak.

Horrez gain, Bilboko Udalaren 2007ko Garapenerako Lankidetzako Laguntza Deialdian genero ikuspegia barneratzeko aholkularitza lana ere egin da.

Aurten, 2004. urtean hasitako hiru proiekturi jarraipena eman diegu; labur-labur azalduko ditugu hiru proiektu horien jarduera nagusiak.

1. EdukAkzioa. Tresna eta baliabide berriak jartzea, garapenerako hezkuntzako praktikak sendotze aldera

Programa honek hiru urteko iraupena du, lan-kidetzan egin da ACSUR-Las Segovias (Asturias eta Madril) eta ASAL (Erroma) taldeekin, eta Europar Batasunaren finantziakzioa jaso du.

Azken hilabeteetan egin diren jarduera nagusiek zerikusia izan dute material didaktikoa ekoiztearekin, eta hausnarketa eta eztabaida egiteko eta esperientziak elkarri trukatzeko esparruak indartzearekin.

Lau hizkuntzatan prestatu, itzuli eta argitaratu dira (euskaraz, gaztelaniaz, italieraz eta ingelesez):

- *Elkartasuna lantzeko baliabideen gida.*
- *Elkartasuna lantzeko jardueren fitxategia.*

(INFORMAZIO GEHIAGO IZATEKO, IKUSI ARGITALPENAK)

Kultura-aniztasuneko inguruneetan hezkuntzako esperientziak elkarri trukatzeko izeneko ikastaroa

Ikastaroaren xede nagusia izan zen aukera ematea hezkuntza-arloko esperientzia berri-tzaileak ezagutzeko, esperientzia horiek erantzuna ematen baitiete, Estatuko beste lurralde batzuetan, kultura-arte elkarriketak sortzen dituen erronkei, eta, gainera, lagungarriak baitira hausnartzeko prozesuak bultzatzeko hezkuntzak gaur egun bere gain hartu behar dituen erronkei buruz, ikuspegi inklusibo eta integratzaile batetik hartuta. Bestak beste, esperientzia hauek azaldu ziren:

- San Cristobal ikastetxe publikoa. Arapi-les. Chamberí. Madril. (Mariana Lovelace. Zuzendaria).
- Casal dels infants del Raval. Bartzelona. (Ignasi López. Hezitzailea eta eskolartze-arloko arduraduna).
- CEIP Cervantes Ciutat Vella de Barcelona. (Isabel Nadal. Zuzendaria).
- Jarduera fisikoa, kirola eta gazteak gizarteratzeko lana. Valentzia. (Kety Librea. Kirolari eta gizarteratzeko jardueri buruzko Ikerketa taldea).
- Zurbaran ikastetxe publikoa. Bizkaia. (Nati Ovelleiro. Komunikazio tailerreko arduraduna).

Garapenerako Hezkuntzako III. Biltzarra. Hezkuntza eraldatzailea globalizazioaren erronken aurrean.

Gasteiz, abenduaren 7a, 8a eta 9a.

Aurreko biltzarra egin zenetik hamar urte igaro ondoren, aldaketa ugari izan dira, eta aldaketa horiek eragin handia izan dute arlo guztietan, baina batez ere hezkuntza-arloan. Garapenerako hezkuntzan lan egiten dugun guztion arrazoibideak eta praktikak eraldatzen joan dira, globalizazio neoliberalaren joerei aurre egin ahal izateko, eta proposamenak asmatu ahal izateko, azken batean, gizartea eraldatu eta aldatu ahal izateko. Xede horiek bultzaturik eta eztabaidaren aldeko esparru ireki batean parte-hartzea sustatu nahian, denboraldi honetan egin dugun lana ebaluatzeko asmoz, eta diskurtso kritikoak bateratzeko eta osagarri bilakatzeko, eta sareak

eta aliantzak bultzatzeko xedez, Biltzar hau egin zen, eta, guztira, 280 lagun baino gehiago bildu ziren, gobernuz kanpoko erakundeak, gizarte-mugimenduak, sindikatuak, unibertsitateak, berrikuntza pedagogikorako mugimenduak, instituzioak, eta lehen eta bigarren hezkuntza barne hartuta.

Biltzarra hitzaldi, lantegi, lan-talde, jarduera egoki eta mintegien inguruan egituratu zen; eta horiek guztiak esparru malguak eta irekiak izan ziren eztabaidatzeko, diskurtsoa eraikitzeko eta esperientziak trukatzeko. Saioetan, ildo estrategikoak eztabaidatu ziren (herritarak eta parte-hartzea; sareak eta aliantzak; aniztasunak; komunikazioa eta kultura; garapenerako eta lankidetzarako hezkuntza; eta eragin politikoa); eta, era berean, gaur egungoak diren bi gai garrantzitsu aztertu ziren (Hezkuntzako Lege Organikoa eta Europako Goi-mailako Hezkuntzako Esparru Berria). Biltzarrari amaiera emateko, jarduera egokiak eta mintegien ondorioak azaldu ziren. Biltzar honen gaineko informazio guztia ikusi nahi baduzu, jo ondoko helbidera:

www.hegoa.ehu.es/congreso/index.htm

2. Hezitzaileak prestatzea epe luzerako garapenerako hezkuntzaren arloan

Prestakuntzako programa hau Herri Hezkuntzarako eta Garapenerako Nazioarteko Hezkuntza Sarean –Polygone izenekoan– dago sartuta. Proposamenaren bidez, bi urteko prestakuntza-prozesua egin nahi dugu, irakaskuntza ez-formalaren esparruan lanean aritzen diren pertsonekin, eta ITECO (Brusela), CIDAC (Portugal) eta CIP (Madril) erakundeekin partzuergoan gauzatu nahi dugu, erakunde horiekin 1996. urtetik aritu baikara lanean Polygone Sarean.

Ikastaro hau Europar Batasunak, Lankidetzarako Portugalgo Agentziak eta Eusko Jaur-laritzak finantzatu dute. Ikastaroaren zati bat on-line egiten da, plataforma birtual baten bidez (www.lvc.webpolygone.net), eta, bestalde, zuzeneko 4 mintegi daude, bakoitza aste-beteko iraupena izango duena, eta ikastarook Rodizio (Portugal), Estibalitz (Araba - Euskadi), Lieja (Brusela) eta Madrilen (Espainia) egingo dira.

Proiektua hasi zenetik, Hegoa plataforma birtuala kudeatzen aritu da, eta, hala, bada, plataforma hori jardunean egongo da prestakuntza-prozesuak irauten duen bitartean. 2006. urteko urtarrilean, zuzeneko bigarren mintegia egin zen Estibalitzen (Araban). Zazpi lanegun horietan, garapen eta hezkuntzari buruzko hainbat ikuspegitan sakondu zen, eta, horrez gain, sakon aztertu zen bi kontzeptu horiei dagozkien esparru kontzeptual bat eraikitzeko lana.

Proiektu honen bidez, tradizio pedagogiko desberdinetakoak diren eta leku desberdinetan lanean aritzen diren pertsona ugari bildu ahal izan ditugu (Ginea, Timor, Filipinak, Indonesia, Peru, Guatemala, Costa Rica, Argentina, Alemania, Belgika, Luxenburgo, Hungaria, Portugal, Latvia, Polonia, Irlanda, Finlandia...); bestalde, pertsona horiek oso arlo desberdinetan jarduten dutenez, hezkuntzarloan dituzten esperientziak bateratu eta azaldu dituzte eta, hala, tresnak trukatu ahal izan dituzte formala ez den sektoretik garapenerako hezkuntzaren arloan lan egiteko.

3. Prestakuntzako jardueretan parte-hartzea. Taldeko lagunak irakasle gisa aritu dira prestakuntzako programa batzuetan

- *Garapenerako Lankidetzako Unibertsitate arteko Ikastaroa.* Alacanteko Unibertsitatea, Universitat Jaume I (Castelló), Miguel Hernández Unibertsitatea (Elx), Universitat Politècnica de Valencia eta Universitat de València.
- *Garapenerako Hezkuntzako Ikastaroa.* Madridilgo Erkidegoko gobernuz kanpoko erakundearen federazioa.
- *Garapenerako Hezkuntzako Ikastaroa.* Elkartasunerako estrategia ezinbesteko bat. CONGDE eta ACSUR-Las Segovias. Madril.
- *Garapenerako Hezkuntzako Ikastaroa.* Jakintzen trukea. ACSUR-Las Segovias-ek antolatua. Gijón
- *Garapenerako hezkuntzari buruzko Jardunaldiak.* Unibertsitatean erabil daitekeen estrategia? Circulo Solidario. Bilbo.

4. Amanda plataforman parte-hartzea

Azken urte eta erdi honetan, Amanda plataforma sortzeko eta finkatzeko lanetan hartu du parte Hegoak; plataforma horrek barne hartzen du Gasteizen kultura-arteko hiriaren eredu berri bat lortzeko lanean ari diren erakundearen multzo bat. Amanda proiektuen proiektu bat da, ideia, ikuspegi eta esperientzia askoren batasun bat, betiere, Gasteizen kultura-arteko bizikidetzak oinarritat harturik, eta helburu komun bat izanik: hiriko etorkinen taldeak gizartean dituen desabantailak hobetzea. Era horretan, proiektua behar bezala zuzendu nahi da kultura-arloko talde bartzuk baitaratzeko eta barneratzeko partekatutako osagai onuragarrietatik aterata den kultura eta herritartasun berri batean. Amandak proposatzen du filosofia hori proiektu sozio-kultural bilakatzea, Gasteizko Alde Zahararen esparruan. Kontu zehatzetatik abiatuta, auzoko benetako egoeratik abiatuta, eta auzoan lan egiten duten zenbait talde ezagututa, barneratzeko eta kultura-arteko prozesuak egin nahi dira Alde Zaharrean, eta, aldi berean, aurre egin nahi da auzoa ghetto baten gisa bakartuta gera ez dadin hiriko gainerako tokietatik bazterrean.

1. Garapenerako hezkuntzako materiala

Lau hizkuntzatan prestatu, itzuli eta argitaratu dira (euskaraz, gaztelaniaz, italieraz eta ingelesez):

Elkartasuna lantzeko baliabideen gida

Gida honen bidez, gure lanerako baliagarriak izan daitezken materialen sorta zabal bat eguneratu, sistematizatu eta bilaketa antolatu nahi da. Gaika antolaturik dago, eta DVD, liburu, gida didaktiko, web orri, baliabide-zentro, aldizkari, gobernuz kanpoko erakunde eta koordinakundeen hautaketa bat bildu du barnean.

Elkartasuna lantzeko jardueren fitxategia

Honen bidez, ideiak iradoki nahi izan dira hezitzaileek eta irakasleek gizarte-aldetik interesgarriak diren ikuspegi eta gai desberdinak landu ditzaten, jolas-girokoak diren proposamen parte-hartzaileak erabiliz, bai arlo formalean, bai formalek ez diren arloetan. Hainbat jarduera eta dinamika biltzen ditu, fitxa formatuan aurkeztuta, eta orientabideak ematen ditu lan egiteko taldearen adinaren arabera.

2. Monografiak

Sistematizazioaren abentura. Nola ikusi eta ikasi gure jarduerak, geure jardueretatik abiatuta. Alboan, Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua eta Hegoa, Bilbao, 2006 (euskaraz eta gaztelaniaz)

Argitalpen hau *Iparraldean eta Hegoaldean herritarren partaidetzako esperientziak sistematizatzea* izeneko programaren barruan dago; eta programa hori Alboan-ek, Hegoa eta Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutuak bultzatu zuten 2002. urtean. Gida honetan pista batzuk jaso dira sistematizazioari buruz,

eta ezaugarri horietako prozesu batean gure iritziz beharrezkoak diren urratsak egiteko moduari buruz ere bai. Horrez gain, osagai funtsezkoak, gomendioak, aholkuak eta iritzi batzuk eman dira, esperientzian parte hartu duten erakundeek beraiek jardunean sortu dituzten sistematizazio-prozesuei buruz.

Tokiko proposamenak bestelako globalizazio bat lortzeko. Globalizazio ekonomikoari, giza eskubideei eta lan-arloko arauari buruzko mintegia. Lan Harremanei buruzko Aldizkaria. Hegoa, UPV-EHU, Bilbao, 2006.

Argitalpen hau *Tokiko eragileen parte-hartzea globalizazio bidezkoago eta solidarioago bat lortzeko. Diagnostikoa eta proposamenak* proiektuaren barruan dago; zehazki, proiektu horren mintegi baten esparrukoa da, eta mintegi horren izena hauxe da: *Globalizazio ekonomikoa, nazioarteko merkataritza eta lan-arloko arauak*. Aldizkari honetako artikuluetako ideien oinarria da nazioarteko ekonomiak oso aldaketa sakonak izan dituela azken bi hamarkadetan. XX. mendearen amaieran, gero eta globalizatuago zegoen mundu bat sortu zen, Iparraldeko eta Hegoaldeko sarreren banaketan desberdintasunak gero eta larriagoak ziren, eta biztanleen zati gero eta ugariago bat bazterturik geratzeko arriskuan zegoen. Hala, bada, dimentsio horretatik nazioarteko bilakatu diren merkataritzaren eta ekoizpenaren alderdi sozialean sakondu dugu, hau da, aztertu dugu zer-nolako lotura dagoen nazioarteko inbertsioaren eta ekoizpenaren artean, merkataritzako fluxuetan, gizartearen ongizatean eta ekitateari buruzko auzietan, hala nazioartean nola estatuan bertan.

Mintegien kontaketa. Giza garapenaren erronka. Tokiko proposamenak beste globalizazio bat lortzeko. Bilbao, 2006

Argitalpen hau *Tokiko eragileen parte-hartzea globalizazio bidezkoago eta solidarioago bat lortzeko. Diagnostikoa eta proposamenak* proiektuaren barruan dago, eta bertan biltzen dira proiektuaren esparruan izan ziren mintegietako saioretan aztertu ziren arazo nagusiak. Hona hemen tartean izan ziren lan-taldeak: 1. *Globalizazio ekonomikoa, nazioarteko merkataritza eta lan-arloko arauak*; 2. *Tokiko giza garapena globalizazioaren esparruan*; 3. *Demokraziaren krisiaren aurrean politikan parte hartzeko modu berriak*; 4. *Globalizazioa eta politika publikoak generoaren ikuspegitik*; eta *Giza segurtasuna: segurtasunerako eta garapenerako agendak bateratzea.*

Argitalpen honetan, zabal bildu dira bost talde tematiko horiek landu eta azken mintegian labur azaldu ziren auziak. Testu batzuk egindako saioren kontaketa dira, eta beste batzuek, aldiz, eztabaidatutako gaietarako buruzko lehenengo ondorioak ateratzen dituzte.

3. Lan koadernoak

Lan koadernoak, 39. zk.

Parte-hartzea: auziaren egoera.

Asier Blas; Pedro Ibarra eta Carlos Askunze (eranskina). 2006ko urtarrila

Argitalpen hau *Tokiko agenteen parte-hartzea globalizazio bidezkoago eta solidarioago bat lortzeko. Diagnostikoa eta proposamenak* proiektuaren barruan dago; eta helburu bikoitza du. Lehenik eta behin, partaidetzari buruzko eztabaida antolatu nahi du, eta, bigarrenik, jarrera jakin bat hartzen du eztabaida horretan. Hirugarren multzo batean benetako errealitateak ateratzen

diren erronkak sartu dira. Izan ere, errealitateak zenbait baieztapen teoriko egin ohi ditu, normalean zorrotzegiak izaten direnak. Eta, bestalde –benetako munduan hau ere– zenbait esperientzia parte-hartzaile abian jartzen ari dira.

Lan koadernoak, 40. zk.

Sistema globalaren kudeaketa eta krisia.

Globalizazioaren paradoxak eta hautabideak. Mariano Aguirre.

Ordezkarritasunaren ondoko politika baterantz?: parte-hartzea XXI. mendean.

Jenny Pearce. 2006ko urtarrila

Argitalpen hau *Tokiko agenteen parte-hartzea globalizazio bidezkoago eta solidarioago bat lortzeko. Diagnostikoa eta proposamenak* proiektuaren barruan dago, eta bi egile ditu. Mariano Aguirreraren artikuluan, estatu nazionalen eta nazioarteko sistemaren zeregina aztertzen da, eta zenbait paradoxa eta hautabide azaltzen dira globalizazioaren arloan. Jenny Pearceren lanean, bi auzi aztertzen dira: alde batetik, politika ordezkatzailearen amaiera, eta, beste alde batetik, nola ordezkatu demokrazia ordezkatzaileak aurreko politika hori.

Lan koadernoak, 41. zk.

Munduko Bankua eta emakumeengan eta genero-harremanetan duen eragina.

Idoye Zabala. 2006ko urria

Lan honen bidez, Bankuak historian barrena izan duen jardueraren azterketa zehatza egin da, genero ikuspegitik. Era horretan, emakumeei buruz egin diren banaketak aztertu dira, Bankuaren politika orokorrak ere bai, emakumeak garapenean eta genero garapenean bezalako gaiak erakundearen barruan instituzionalizatzeko izan den prozesua azaldu da, eta, azkenik, irakaspe-

nak atera dira bankuan genero-ikuspegia instituzionalizatzeari buruz eta politika orokorrei buruz egin diren azterketak oinarritzat harturik, horiek dituzten mugak eta ahalmenak kontuan izanik.

4. Gida didaktikoak

Emakumeak mundu-mailako hitzaldietan. Tokiko arlotik arlo globalera. Bilbao, 2006 (euskaraz eta gaztelaniaz).

Argitalpen hau *Tokiko agenteen parte-hartzea globalizazio bidezkoago eta solidarioago bat lortzeko. Diagnostikoa eta proposamenak* proiektuaren barruan dago; eta horma-irudi tolesgarri bat du. Hezkuntzako baliabide soila eta erabilgarria izan nahi du, Emakumeari buruzko Mundu-mailako Hitzaldien gaia eta Emakumeen Nazioarteko Mugimenduaren gaia aztertzeko. Hona hemen gida honetan lantzen diren edukiak: Desberdintasunaren jatorria, Emakumeari buruzko Mundu-mailako Hitzaldiak eta Emakumeen Nazioarteko Mugimendua. Horretaz gain, hainbat jarduera proposatzen dira edukiak landu ahal izateko, eta, orobat, terminoen glosategia eta filmen zerrenda bat sartu dira, horiek lagungarriak izan daitezkeelako edukiak lantzeko; bestalde, web orrien zerrenda bat ere sartu da, informazio gehiago jakin nahi izanez gero, horietara jo ahal izateko.

Mundua ez da salgai bat. Bilbao, 2006 (euskaraz eta gaztelaniaz)

Gidaliburu hau *Tokiko agenteen parte-hartzea globalizazio bidezkoago eta solidarioago bat lortzeko. Diagnostikoa eta pro-*

posamenak proiektuaren barruan dago. Material honen bidez, baliabide erraz bat eman nahi da Merkataritzako Mundu-mailako Erakundearen gaia lantzeko, eta erakunde hori globalizazio neoliberalaren tresna gisa definitzeko arrazoiak azaltzeko. Horma-irudi tolesgarria du, eta hori baliagarria da ikusmen-aldetik, ondo laburbiltzen baititu grafikoen bidez landu nahi diren gaiak; horrez gain, gidaliburu didaktikoak sakon aztertzen ditu edukiak eta jardueren proposamenak, eta webean dauden baliabideak ematen ditu informazioa zabaltze aldera. Horretaz aparte, orri bat sartu da, gidaren amaieran proposatzen den jarduera garatu ahal izateko.

5. Artikuluak eta ikerketak

ALBERDI, J. y ALCALDE, A.R. (2006) *Cooperación para el Desarrollo en África Subsahariana: Entre la ambivalencia del discurso y la complejidad de las realidades africanas.* En: *África en el horizonte. Introducción a la realidad socioeconómica del África Subsahariana.* IUDC-Los libros de la Catarata. Madrid.

ALBERDI, J. y BIDAURRATZAGA, E. (2006) *El Plan África 2006-2008: cuestiones para el debate.* Ponencia África. Foro AOD-FRIDE. Ver: www.foroaod.org

ALBERDI, J. y BIDAURRATZAGA, E. (2006) *El Plan español para África (2006-2008): ¿Una guía de acción para la política exterior o para la cooperación al desarrollo?* *Revista de información y debates Pueblos.* Madrid.

ALBERDI, J. y MENDIA, I. (2006) *Asesoramiento internacional en la investigación "Cambio de roles genéricos y niveles de empode-*

ramiento de las mujeres en el marco del conflicto social y armado. Caso Caquetá (Colombia). Investigación llevada a cabo por la Universidad de Amazonia y Gernika Gogoratuz y financiada por los Fondos de Cooperación al Desarrollo del Gobierno Vasco.

ARESKURRINAGA, E., BARRUTIA, X. y MARTÍNEZ TOLA, E. (2006) *El impacto del nuevo marco regulador del comercio internacional en las ZFI de los países del Sur: el caso textil y de la confección*. Análisis Económico, vol. XXI, nº 47. México. pp. 209-233.

ARESKURRINAGA, E. BARRUTIA, X; MARTINEZ TOLA, ELENA (2006) *Txina nazioarteko tes-tuinguruan: oihalgintza eta jantzigintza*. Uztaro. Volumen 58, pp. 11- 26. Bilbao

BIDAURRATZAGA, E. (2006) *La integración económica regional como instrumento de desarrollo: nuevas tendencias y limitaciones*. Cuadernos África-América Latina, nº 40-41. Primer semestre. SODEPAZ. Madrid.

BIDAURRATZAGA, E. y MARÍN, A. (2006) *Integración regional africana y nuevas relaciones con la Unión Europea como instrumentos de desarrollo*. En: África en el horizonte. Introducción a la realidad socioeconómica del África Subsahariana. IUCD-Los libros de la Catarata. Madrid.

DUBOIS, A. (2006) *Una lectura crítica de los Objetivos de Desarrollo del Milenio: ¿qué tienen que plantearse las sociedades ricas para el siglo XXI?* En: *Pobrezaren hondamena, gaurko ekimena*. Pobreza cero, hoy es posible. IDTP, Desclée de Brouwer, pp. 7-28.

DUBOIS, A. (2006) *Convergencias y divergencias sobre el concepto de pobreza: ¿desde dónde se plantean las estrategias para su reducción en el ámbito mundial?* En: *Varios*

(2006); *Pobreza y solidaridad, hacia un desarrollo sostenible*. Federación de Cajas de Ahorros Vasco-Navarras, pp. 157-173.

DUBOIS, A. (2006) *El gran reto de acabar con la pobreza*. Pueblos, Marzo 2006, nº 20.

HERNÁNDEZ ZUBIZARRETA, J. (2006) *Las empresas transnacionales españolas en América Latina. Los códigos de conducta como sistemas atípicos de regulación de las relaciones laborales*. Lan harremanak: Revista de relaciones laborales, nº 14, 2006, pp. 125-174.

HERNÁNDEZ ZUBIZARRETA, J. (2006) *El movimiento sindical ante la globalización neoliberal: algunos ejes de intervención, La Red en la encrucijada*. Anuario de movimientos sociales 2005, Elena Grau y Pedro Ibarra (coord.), Betiko Fundazioa e Icaria, Barcelona. pp. 42-62

HERNÁNDEZ ZUBIZARRETA, J. (2006) *Los hidrocarburos en Bolivia. Un difícil desafío para Evo Morales*, Hika nº 173. pp. 33-35

HERNÁNDEZ ZUBIZARRETA, J. (2006) *Bolivia: la nacionalización de los hidrocarburos*, Hika nº 177, 2006, pp. 44-47

MENDIA, I. (2006) *De víctimas a sujetos políticos: mujeres organizadas por la paz*. Revista Española de Desarrollo y Cooperación Internacional, Instituto Universitario de Desarrollo y Cooperación (IUDC), Universidad Complutense de Madrid, nº 18 (Monográfico: Más allá de la ayuda humanitaria: rehabilitación posbélica y construcción de la paz), pp. 125-142.

PÉREZ DE ARMIÑO, K. (2006) *Paz y rehabilitación posbélica en Angola: oportunidades y riesgos de un proceso atípico*. Revista Española de Desarrollo y Cooperación In-

ternacional, nº 18 (Monográfico: Más allá de la ayuda humanitaria: rehabilitación posbélica y construcción de la paz). Instituto Universitario de Desarrollo y Cooperación (IUDC). Universidad Complutense de Madrid, pp. 79-108.

PÉREZ DE ARMIÑO, K. (2006) *Seguridad humana: el cruce entre la seguridad y el desarrollo*. En Pérez de Armiño, Karlos, Joaquín Herrera, François Houtart *et al.*, *De los derechos y la seguridad humana, de todos o de nadie*, PTM-mundubat y Ed. Gakoa, San Sebastián, pp. 19-27.

SUTCLIFFE, Bob (coord.) (2006) *Migraciones internacionales*. Revista de Economía Mundial, 14, Universidad de Huelva.

SUTCLIFFE, Bob, (2006) 'Death and Development', Chapter 7 of *Human Development In The Era Of Globalization/ Essays in Honor of Keith B. Griffin*, edited by James K. Boyce, Stephen Cullenberg, Prasanta K. Pattanaik and Robert Pollin, London: Edward Elgar, 2006.

UNCETA K. (Dir.) (2007) *La cooperación al desarrollo en las universidades españolas*. AEI. Madrid.

24

Bestelako informazioa eta jarduerak

Hegoa Institutua Harresiak Apurtuz gobernuz kanpoko Euskadiko erakundeen koordinakundearen Zuzendaritza Batzordean dago sartuta; Harresiak Apurtuz etorkinei laguntzeko Euskadiko gobernuz kanpoko erakundeen koordinakundea da. Hegoa Euskal Herriko herritar etorkinak gizarteratzeko eta gizartean parte har dezaten lortzeko dagoen Foroaren kide hautetsia da, hain zuzen ere, foro horren Batzorde Iraunkorrean sartuta dago eta Hezkuntzako Batzordea koordinatzeko lanaz arduratzen da. Horrez gain, hasieratik eman dio laguntza Harresiak Apurtuz koordinakundeari, Zubiak prestakuntzako ikastaroa prestatzen, hain zuzen ere; ikastaro horri dagokionez, nazioarteko egoerari buruzko sarrera-modulua koordinatzen du.

Bestalde, Hegoak parte hartzen du UNIFEM (Nazio Batuen Emakumeentzako Garapen Funtsa) bekak dituzten ikasleei jarraipen-lanak egiten, Hegoak eta Eusko Jaurlaritzak sinatu zuten hitzarmenaren bitartez.

Hegoak eta Antioquiako Unibertsitateak (Medellingoak) sinatu zuten hitzarmenaren esparruan, Hegoak modulu bat ematen du eta beste modulu batean parte hartzen du, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzako Proiektuetarako Kudeaketarako Diplomaturan, urtero bi denboralditan egiten den horretan.

Organigrama

Hegoa Institutuaren Zuzendaritza Kontseilua

Zuzendaria: Luis Guridi **Idazkaria:** Karlos Pérez Alonso de Armiño **Mahaikideak:** Alfonso Dubois, Eduardo Bidaurrezaga, Jokin Alberdi, Carlos Puig, Patxi Zabalo, Amaia del Río, Juan Karlos Pérez de Mendiguren, Maribi Lamas.

Hegoa elkartearen Zuzendaritza Batzordea

(ELKARTE HAU ONURA PUBLIKOKO ELKARTEA ZELA AITORTU ZUTEN. EHAA, 165. ZENBAKIA, 2003KO ABUZTUAREN 26A)

Batzordeburua: Alfonso Dubois **Batzordeburordea:** Uri Ruiz Bikandi **Idazkaria:** Luis Guridi
Diruzaina: Margarita Roig **Batzordekideak:** Lucía Vidal, Gorka Espiau, José María Navarro, Carlos Martín Beristain **Aholkulariak:** Ramón Zuñiga, José Luis Gutiérrez.

Hegoa Institutuari atxikitako irakasleak

Jokin Alberdi, Efrén Arreskurrinaga, Xavier Barrutia, Roberto Bermejo, Eduardo Bidaurrezaga, Mari Luz de la Cal, Mikel De la Fuente, Juanjo Celorio, Marian Díez, Alfonso Dubois, Iker Etxano, Xabi Gainza, Luis Guridi, Jorge Gutiérrez, Juan Hernández Zubizarreta, Pedro Ibarra, Yolanda Jubeto, Mertxe Larrañaga, Imanol Madariaga, Eduardo Malagón, Zesar Martínez, Elena Martínez Tola, Mari José Martínez, Karlos Pérez de Armiño, Juan C. Pérez de Mendiguren, Uri Ruiz Bikandi, Koldo Unceta, Idoe Zabala, Patxi Zabalo, Imanol Zuberu, Mikel Zurbano.

Talde teknikoa

Dokumentazio Zentroa: Itziar Hernández, Iñaki Gandariasbeitia **Prestakuntza eta irakaskuntza:** Maribi Lamas, Isabel Rodríguez, Marisa Lamas **Sentsibilizazioa eta garapenerako hezkuntza:** Gema Celorio, Amaia del Río, Mari Cruz Martín, Alicia López de Munain, Ainhoa López **Aholkularitza eta kontsultoretza:** Carlos Puig, Michel Sabalza, Irantzu Varela, Maite Fernández- Villa, Josu Sánchez
Administrazioa eta idazkaritza: Pilar Jurado, Almudena Sainz.

Beka jaso duten langile ikertzaileak

Irantzu Mendia, María López Belloso.

Sareak eta lankidetzak

ARDA (Ikerketako eta Irakaskuntzako Afrikako Elkarte) • Euskadiko garapenerako gobernuz kanpoko erakundeen koordinakundea (kide laguntzailea) • Espainiako garapenerako gobernuz kanpoko erakundeen koordinakundea (kide laguntzailea) • Harresiak Apurtuz, etorkinei laguntzeko Euskadiko gobernuz kanpoko erakundeen koordinakundea • WIDE, Women in Development Europe • EADI, European Association of Development Institutions • REDIAL, Latinoamerikako Informazio eta Dokumentazioko Europako Sarea • SID, Garapenerako Nazioarteko Elkarte • SEDIC, Informazio eta Dokumentazio Zientifikoko Espainiako Elkarte • ALDEE, Artxibozainen, Liburuzainen eta Dokumentalisten Euskal Elkarte.

Beste unibertsitate batzuekin egindako hitzarmenak



Antioquiako Unibertsitatea (Medellin. Kolonbia) • Amazoniako Unibertsitatea (Florenzia-Caqueta. Kolonbia) • Holguineko Unibertsitatea (Holguin, Kuba).

Laguntzaileak

Eskertu nahi ditugu urtean zehar Hegoak antulatako hainbat ekintzetan eta jardueretan parte hartu duten guztiak.

Ekonomia Txostena

26



2006ko abenduaren 31 arteko Emitzen Kontua

ZOR	2006	2005	HARTZEKO	2006	2005
A) GASTUAK	1.408.550,37	1.052.623,84	B) SARRERAK	1.472.694,96	1.060.254,59
• Moneta-laguntzak eta bestelakoak proiektuetan	402.119,85	274.429,05	• Erakundearen sarrerak, berezko jarduera dela eta	1.464.640,06	1.055.106,99
A. Laguntza ekonomikoak beste erakunde batzuei eta beka	383.060,75	241.434,05	- Erabiltzaile eta bazkideen kuotak	28.893,98	14.413,62
B. Kolaborazio-gastuak / Dietak eta egonaldiak	19.059,10	32.995,00	- Ekitaldiko emaitzetan kontabilizaturiko dirulaguntzak, emariak eta ondasunak	1.278.533,44	935.944,52
• Langileen gastuak	526.390,57	481.810,34	- Berezko jardueraren beste sarrera batzuk (zerbitzuak)	157.192,64	104.748,25
A. Lansariak	411.269,64	384.821,16	• Otros ingresos	698,96	741,23
B. Gizarte zamak	115.120,93	96.989,18			
• Ibilgetua amortizatzeke zuzkidurak	4.771,34	6.188,32			
• Proiektuak gauzatzeko zuzeneko gastu	472.303,75	289.654,64			
I. USTIAPEN EMAITZA POSITIBOAK	59.753,51	3.765,87	• Beste sarrera batzuk	7.315,94	3.658,48
• Finantza gastuak eta antzekoak	512,48	541,49			
II. FINANTZA EMAITZA POSITIBOAK	6.803,46	3.116,99			
III. JARDUERA ARRUNTEN EMAITZA POSITIBOAK	66.556,97	6.882,86	• Beste ekitaldi batzuetako sarrerak eta irabaziak	40,00	747,89
• Aparteko gastuak	200,00	43,43			
• Aurreko ekitaldietako gastuak eta galerak	2.252,38	--			
IV. ZERGEN AURREKO EMAITZA POSITIBOAK	40,00	747,89			
V. EKITALDIKO SOBERAKIN POSITIBOAK	64.144,59	7.630,75			
VI. EKITALDIKO SOBERAKIN POSITIBOAK	64.144,59	7.630,75			